

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 6,6 milioi euroko gastua baimendu du Nafarroa Arena pabiloia martxan jartzeko

Geratzen den obra egiteko eta azpiegitura hornitzeko 6 milioi euro bideratuko dira

Asteazkena, 2017.eko uztailak 5

Nafarroako Gobernuak 6,6 milioi euroko gastua egiteko baimena eman dio gaurko bilkuran Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari, Navarra Arena pabiloia lanak amaitzeko, hornitzeko eta prest jartzeko. Azken finean, helburua atek irekitzea da. Lanak aurtengo azaroan hasiko dira, eta instalazioak 2018ko azken hiruhilekoan abian hartzea aurreikusita dago.



Arena pabiloia argituta.

Hasieran jakinarazi zuen moduan, azpiegitura berria erreferentziako esparru bat izango da Nafarroako kirol-esparruan. Horretarako, pabiloiaz gain, jadanik dagoen eskaintza osatzen duten kirol eta kultura jardueretarako bakarrik irekiko dena, Komunitateko beste azpiegiturretan daudenak baino leku gehiago eskatzen dituzten ekitaldiei erantzuteko, eraikinaren zati batean Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko kirol-esparruaren egoitza eta federazioen egoitza den Kirolaren Etxea izango dira modu iraunkorren.

Inbertsioaren banaketa

6.641.657,39 eurotatik, zenbatekorik handiena, 4,9 milioi euro, geratzen ziren lanei dagozkie. Horietan barne hartzen da eraikineko zenbait eremu erabilera-irizpide berrietara egokitzea, eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren eta federazioen egoitza hartzeko moldatzea. Beste 1,1 milioi euro zenbait materialetako ekipamendurako bideratuko da: kirol arlokoak, bulegokoak, zerbitzuetakoak eta osagarriak. Horrela, guztira, 6 milioi euro izango dira. Inbertsioa esku hartzeetan egindako 338,358 euroko gastuarekin (obra-zuzendaritza, segurtasuna eta osasuna, informatika-kudeaketa eta abar) eta lekualdaketetan egindako beste 230.000 euroko gastuarekin osatuko da.

Pabiloia ezaugarriak

Gogoratuko denez, pabiloia 20.000 m².ko orube batean dago, Osasuna taldearen futbol-zelaiaren ondoan. Gehienez 20 m garai den eraikina da, bi soto (behekoa aparkalekua da), beheko solairua eta beste hiru maila ditu. Eraikitako azalera osoa 45.000 m² da.

Barruan 3.000 m²-ko pista zentral handi bat dago, 10.000 ikusle baino gehiagorentzat, harmaila finkoak eta teleskopikoak ditu, eta edukiera moduluka bereizita dago. Badago beste pista osagarri bat, 1.600 m²-koa, 1.500 plazetarako, guztiak harmailetan. Barrutian 36 metroko frontoi bat dago.

NICDO sozietate publikoak kudeatuta du esparrua, kirol, kultura eta bestelako erabileren beharren arabera, bere kudeaketa-esparruaren barruan dauden erabilera anitzeko azpiegituren artean dauden sinergieztan baliatuz. NICDO dagoeneko zenbait azpiegituren kudeatzailea da, hala nola Baluarte Batzar Jauregia eta Auditoriuma, Iruñeko Planetarioa, Larra-Belagua Ipar Eski Zentroa, eta Nafarroako Zirkuituaren eta Nafarroako Azokaren jabea da.